

filosofo,
politiko,
literatur-teoriko
eta literato

Georg Lukács hil denez gero

Georg Lukacs lehenengo Gerra Mundialaz gerozko filosofo eta intelektual marxista entzutetsuena izango zen Europan, apika. Literatur-ritikoez haina zor diote klase-burrukaren teorikoez, eta —harrigarriago— mendebaleko marxismoaren berbizkundeak haina behinola esistentzialismoak: geroagoko Kierkegaardianoen zenbait kezka berak zabaldu bait zuen. Eta halare, «Arrazoimenaren errauspena» liburu garrazaren idazle individualista, errealismoaren aldezkari sutsuak F. Kafkari erreialismo gutxiegi kausitzen zion. Kafka ofizialki gaitzerizta zegoen marxistaren aldetik, eta Lukacsen kritikak kondena hau bermatzen zuen, Kafka sozialismoarentzat berrirabazi zuen zenbait (E. Fischer, etc.) Lukacsen adiskide izan arren.

Idazle nekagaitz eta kritikiko zorrok honen lanak Lukacs berek gogotik aipaturiko Leninen esaldi bat eduki zezakeen abiaburu: «errealdadea legea baino aberatsago da... ta horregatik legea, edozein lege, motz, kamuts; hertsia ta hurbil-inguruzkako, aprosimatibo bakarrik da». Abiaburu zaila, jakina. Erakunde hartmatutako ideologiazko «legea» eskas bezain zital izan ohi bait da, eskasia hura hautesman duenarekin batez ere. Paradosa batez, Lukacs Kakak deskribaturiko eta bere erreialismorik gabeko epaitutako «hauzian» kausitu zen bere biziz guztia.

Lukacs marxista zen. Goitik beheraino marxista —eta goitik beheraino marxismoaren kritizatzaile. Intelektualaren probarriztat halako bakoitzaren marxismoarekiko hartuemana zedukan. Han sumatzen zuen intelektualak bere denborari buruz zein gizeleze zerabilen. Intelektualak, inperialismoaren aldi hontan, «marxismoarekin burruka izpiritualean» ibiltzari ezin itzurizko samar erizten zion. Baina dogmatismo konformistaren aurkako makitara, partisanotara sartu zuen bere burua.

Erreboluzio sozialistak burgesa ankapean zarpildu e baino dialektikoki gaindiatu egin behar duela sinetsik, ez inola ere ezeztatu, zenbait marxistaren askatasun «burgesekiko» arbuioa ezin pasan zuen. Odol eta bizitza asko kostatako askatasun «burgesak» iristeagatik mendebalea belaua eta belauak zehar burrukatu da: Lukacs ezin konprenitu zuen haiek baino askatasun *hoeben* aitzakiarekin askatasun on haiek zabartzea, haiek egiazkotzen eta osatzen saiatu ordez. Demokrazia Herritarretan askatasun burgesa baino askatasun gehiago ta hobeago egin behar du, baina haiek falta gabe. Blochek bezala Lukacs ere mendea-mendeko emanzipazio-burrukaren kondairan ezartzen zuen klase-burruka, edukitakoari gainhartu beharrez hortakoz. Blochek mendebalera ihes egin (behar izan) zuen; Lukacs heriotzera arte bere lekuan irmo enpeinatu da. Biak jukegu dira. Baina hor ez dago filosofo bion nortasun-diferentzia bakarrik ikusterik, beharbada hori baino gehiago Alemania Demokratikoko (DDR) eta Ungariako sozialismoen arteko ezberdintasuna baino. Lukacs bere kritikaturiko eta bere kritikoen obrak itzolaraz eta zabal zitzaizkion Ungarian. DDR-n ostera, Lukacs bere ere ta oraindik ere zentsurapean dago.

G. Lukacsen obra ugari ta ezberdinean ez da erraz ongi orientatzen asmatzea, urrutikoarentzat batak bat arras inposible denik baizpadan ez esateko. Eragipen ezberdin asko dago bere obran: neokantia-

noena, Hegelena, Marxena, anarkista antzeko sindikalista-edo ungar arena (E. Szabo), Leninena, Max Weberena, Blochena, ta XIX mendeko erreialismoarena erruz. Eragin guztio ez dira sistima txukun-txukun baten forman zerraz-zerra, bata bestearen gainean eta elkarren artean urtu gabe, zein beretzat gelditu. Dena bateratu eta aldatu da Lukacsen pentsamentu labean. Lukacs, izan ere, sistimatiko baino su-mendi, garmendiago izan bait da, ta aldiari aldiari laba diferentea bota izan du. Bere obra sistimatiko handia, «Gauza sozialaren ontologia-prolegomenoak», argitaratu gabe utzi du ta mila orrialdetatik gorakoa da.

Georg Lukacs bere eboluzio izugarria eduki du, eta eboluzio hori lineal ez beste edozein gauza izan da: abandonatutako zenbait ikusgintetara atzera itzultiz, berak sortutako zenbait ideari (ta noizpait eskola sortutako bere burutapidei ere) gero uko eginiz eta geroago berriro baitetsiz, etc. «Kondaira ta klase-konziencia» bere liburuiko zenbait tesi, esaterako, Lukacs bere bizirik hartu, utzi ta atzera hartutakoa da, azkenean zer-nola ulertu zehatz jakitea batera: erraz gelditzen ez delarik, 1923 ko Lukacsen liburu hori bere sonatuenetakoa da, ta bikainenetakoa ere bai ezparririk gabe. Liburuari ez zaio zer kritikaturik falta, ta kritikorik ere ez zaio faltatu. Baina haren merezimendu historikoa marxismoari abiada eta hedadura berriak sortu izanean dago batez ere Gramsci, Korsch eta Blochekin batera. Ikusgintea ta ikusmira berriak iriki zizkieten. Eta marxismoak egunotan eraginidura eta eite berria agiri baditu haiei eskerak da hein haundi batetan.

Lukacs zailtzen duen hirugarren zioa bere bizitza da, hontao bere pasadizoek sartu-irten haundia jokatzen bait dute bere obran. Lukacs Alderdi Komunistan (AK) zegoen: askotan idatzi behar izan zuen Alderdiak agintzen ziona, ta lerro artean bakarrik berak pentsatzen zuena; askotan, orobat, bere okerrak «aitortu eta zuzendu» ere, larria salbatzeko; askotan alderdikieraz jardun, burrukak hartaratu (ez bait dago bi Gerra Mundialen arteko giroa aztertzeko). Bere egiazko pentsamentua edireiteko, bererik izan gabe idatzitako hamalaka lerroren artean bilatu beharra dago. Hala, bigarren paradosa batez, Lukacs hainbeste gorrotatzen zuena egin beharra dago bere obrarekin: kasuistika.

Iring Fetscher Lukacsen adiskide eta Marx-egutzaila pijoak hiruro berezten du Lukacs marxistaren idazkietan (gaztezarokoak aparte utziz, hortakoz): 1) Erakunde-hauizez salaera zenbait eta «Kondaira eta klase-konziencia». Leninena eta M. Hessen azterketak; 2) politikazkoetatik literatur-arloetara itzuliz gerorakoak (1930-etik 1945 ingurura artekoak); 3) desestalinizazio-asmo eta garaitakoak eta estetikari buruzko azterketa sistimatikoak. Lukacs ulertzeko bere bizitza inportante da.

Lukacsen gaztezaroko obrak Marx ezagutu aurrekoak dira: «Drama modernoren desarriko-kondaira», «Literatur-kondairaren metodologia», «Nobelaren teoria», «Arima eta formak», etc. Lukacs Budapesten 1885 ean jalo zen. Bere aita Kaiserrak aiton-sematuriko judegu bankaria zen. Ikastarok Heidelbergera eta Berlinera eramau zuten. Thomas Mannek bere «Aztimendiko» (La montaña mágica) Aita Naphta je-

suitarekin ez digu Lukacs gaztea besterik deskribatu. Bere hogeigarren urtetan jadanik teatro-talde baten sortzaile eta aldizkari baten artezari zenak sarkonki ezagutzen zuen literatura alemana, eta XIX mendea erabat. Lukacs gazteak individualismo estetiko baterantz jotzen zuen, eta individualismoa eta estetismoa ez ditu sekula galduko. Lehenengo Mundu Gerraren inguruan kondaira eta etikaren arteko azterkizunetan ari zen. Dostojewskiren azterketan batez ere. Gerozko ta agian bere obra guztiko *leit-motiv* edo haria garai hontantsu azaltzen da: Lukacs gerozko gurtian «erreboluzionario moralista» edo «sozialista humanista» bezala igoko da bere aiparen gailurrera. Urriko Erreboluzioak zirrada izugarria sortu zion barnean, orduara arteko bidea utzi ta iraultzan deliberraturiki konprometi arazterainokoa sortu ere.

1918 an AK Ungariarren sartu zen, Alderdia fundatu eta egun gutxitara. Bela Kun komunista-komunistaren gobernupean Hezkuntza-Ministro izateratu zen. 1919 an 5garren Dibisio Gorriko komisario politikoa bezala gudaroste txekiari eta rumenoren aurka Ungariar Armada Gorrian zerbitzatu zuen. Denbora hontan asaldatutako soldadu mordoska bat afusila arazi zuen. Lukacs aitzakiarik gabe eta bere buruaren kupidarik gabe beregain hartu du horixe agindu izana, eta bere Stalinismoaren kritikan ederki nabari da hori: beharrezko gogortasuna eta terrorre berezten gogotik saiatu da beti, Stalinen kritika antisozialismorik bihurtu gabe. 130 egunetako agintaldiaren buruan Bela Kun erori zenean Lukacs Vienara ihes egin behar izan zuen. Alemaniara gero. Denboraldi hontan «sujetibismo ultra-ekzertiarrean» zegoela aitortzen digu bere buruz. Baina aitortza hori Stalinen mendeko urteetan idatzia izanik, ez da erraz bere balio zehatza igartzea. Nolanahi ere Lenineta ez zituen oraindik ezagutzen, eta falta hori nabarmen dago bere idazkietan. Beraz, bere Leninekiko diferentziak harkiko kontraste baino gehiago dira ez ezagutzen. Leninek kritikak gogorra eginik, Lukacs Leninen usteetara bildu zen. Herbeste-urteotan lan ta lan ari zen, Lenin eta sozialista alemanak atsedetik gabe azterkatzen: 1923 an «Kondaira ta klase-konziencia» argitaratu zuen. Liburu hau Lukacsen eboluzio galantaren lekuko agiria da. Ez zen Mskuren gustokoa eta erasoak erasotzean Lukacsen buru makurtu ta isil-isilik iruntsi egin behar izan zuen Moskutik botatoko deskonfioa, «errebixionistagatik». 1930 ean, Moskuko zegoela, liburu honen autokritika bat argitaratu zuen. Geroago kontra-autokritika bat berriro. Stalinismoaren mendeko bere urteen berri *Postscriptum 1957* idaztitxoan kontatzen digu. Urte hoetakoa da «Hegel gaztea» liburutzar galanta ere: argitaratzerik ez zedukanez, ezkut-ezkutuka erabili zuen beti berakin Stalin erori arte. ena den, bere bizia behintzat balatu zuela eta gero.

Baina bere kalbarioa ez zen oraindik bukatu. Gerra ondian, atzera Ungaria-ra itzultirik, astirik galdu gabe ortodosi «marxistari» erasoka ekin zion. Baita profesorgoia laster galdu ta berriro autokritika egin ta goiti idaroi alao maina bat idatzi ere. Hirugarren aldiz ere larria salbatu zuela eta gustora, halara. Baina Lukacs ez zen laster eskarmentatzenko: 1955 ko ungarier altxamentuan parte harturik Imre Nagyren Hezkuntza-Ministrotaratu zen, eta oraingoan kitto azkeneko unean bere adiskide Janos Kadar izan ez bailitz. AK-tilbotata, konfinatuta, etabar, baina pis-

kana piskana atzera bere burua balioberriatzen ahal izan zuen eta 10 urteren buruan atzera AK-an onartu zuten (1967) 80 urteak pasata gero, eta baita noiz-pait Budapesten berriro Irakasle jarri ere.

Baina Lukacsen eboluioa ez zen kanpotik (goitik) eragindakoa bakarrik. Guztiz sekula ere argitu ezin izan arren bere «sujetibismoak», idealismoak beti biziki arduratu zuten. Marx atzera Hegelekin lotzen saiatu, agian zilegi den baino gehiago «hegeldiar-du» zuten Marx. Lukacsen beraren susmo honek batez ede garai hartan Marxen esku-idazkiak eta lehen-idazkiak ezagutu zituelako daduka bere obraren-zent inportantzia.

1930 az geroz denboraldi luze batetan Lukacs politikazko gorabeherak utzi ta estetikoak, arte ta literatur-teorikoak landuko ditu (nazismoaren kontra ere zenbait panfleto antzeko saiara idatzi izan arren), ezpairik gabe politikazko gaietan berak nahi haina libenterik ez zedukalako. Moskuko bere bizialdiak batez ede garai hartan Marxen esku-idazkiak eta lehen-idazkiak ezagutu zituelako daduka bere obraren-zent inportantzia.


Lukacs gaztearen eta Lukacs zaharren horizonte urduri eta zabalak ezagunak dira, eta sarri jasan zuten horrexegatik «ofizialen». Alderdi-marxista txin-txoen gaitzerizkoa. Baina bien artean bururak kaiola batetan sartu zuela Lukacs esan ditek, bere erre-alismoaren fanatismoan preso samar dagoela bait di-rudi. Berritasunekiko zeharo hertsia zen. Kafka, Joyce, Dos Passos, Proust dekadentetat jotzen zituen eta erabat arbuatzen. Ezin ikusi zuten abangoardismoa. Tolstoi, Balzac, Thomas Mann iruditzen zitzaizkion literatura sozialistaren eredu.

Lukacs ez zuen inoiz «mendebale librera» ihes egiterik pentsatu, bizitza arriskutan edukita ere, zen-eta «ni ez bait naiz sistimaren kontrario senti-tzen, berrizatu beharrezko marxismoaren erreforma-tzaille baiziki». Gutxiago noski Koestler eta antzekoen bidetik abiatu. Gizalege honek ezpataren eta horma-ren artean eduki zuten Lukacs bere bizi guztian: ezin isildu, baina mintzatu orduko, burua salbatu behar-ta, esandakoa desesan behar. Lehenengo eretian, halare, benga kargazioa berriro ta buelta autokritika.

Beharko zaila izan Lukacsen obrak, bere bizitza ez zen erraza izan-ta.

Intelektuari idazleari, albistariari eta artistari Lu-kacsek erre-alismoa eskatzen zien. Marxista berritan komunismoaren interesak eta gizadiaren osotero koindizitzen zutela ueste zuten. Une batez giadiaren eta AK-ren interes-berdintasunean sinesteralino ere ailegatu zen agian. Ta artistari eskatzen zino erre-alismoak araupekotasun edo diziplinaren itxura zedu-kan. «Ofizialek», halare, independentegi aurkitu zu-ten bere erria, eta Lukacs geroz eta halakoxeago bilakatu zen, erasoak eraso eta kritikak kritika. Bere erre-alismoa, azkenerrako, erre-alismo sobietiko deri-tzanarekin polemikan osaturiko burutapide bilakatuko da, nahiko berariazko ta propio.

Erre-alismoa ez da irabazten Alderdiren batetan sartuz, ala Alderdiren baten propagandista bihurtuz:



«erre-alismo» sobietarraren kritikorik zakarren eta gogorrena Lukacs izan da, askatasunarekin batera literatura ere itotzen duelakoxe izan ere. Marxismoa

intelektualaren probarriztat baldin bazedukan ere ez zuten hau aitortzaren batekin lotzen, eta gutxiago Alderdiren batenganako zerbitzu-erraztasunarekin. In-portantzia gutxitzat daduka idazlearen «alderdi» so-zio-politiko. Idazlea bere lanean gizartearen azter-keta marxistari atxikitzea ere sekundario zirudion eta bere erre-alismoaren espilutat Balzac monarkista bur-ges porrokata zedukan. Bertolt Brecht, aldiz, «ezker-radikalista txaldantzat». Lukacsen erre-alismoa XIX mendearrekin piska bat gehiegi ilulaturik-edo zegoen. XIX mendeko literatura «burges» guztia gune ta gihar etiko-gizatiarrez beteta aurkitzen bait zuten, eguna-tako literatura «sozialista», aldiz, halakoren arrastorik gabe, Alderdi-losentxari ta manukor. Haren mami eti-ko-gizatiarragatik zegoen Lukacs batez ere Soljeni-zynen alde. Desestalinizazioarekin batera atzera marxismo zaharrera, Alderdi-erakunde trinkoen aurre-kora itzul-mina, kommuna-ideala ta «idealismoa» ber-bizitu zitzaizkiola dirudi.

Lukacsen fedea ta itxaropena sozialismoan ez zen seula kordokatu. XIX mendearren ezagutzaile pare-gabeak Zolaren esaldi batekin zuzenesten zuten «zen-finean bere esperantza: «La vérité est lentement en marche et à la fin des fins rien ne l'arrêtera» (egia astiro-astiro ba doa ta azken-azkenean ezker ez du geldiarazi ahal izango). Adorno neomarxisten aita izpiritual eta «dialektika irikiaren» teorikoak ezin zuten optimismo hori ulertu: katetan zegoen fantasma bat iruditzen zitzaion Lukacs, «bere kateen hotsa Mundu-izpirtuaren urrats oihartzuna delakoan» zora-biaturiko fantasma.

Lukacsen bizitza eta obrak, halare, paradigma bat eskaintzen digu. AK utzi ta berekisa abiatutako asko dago: zer pentsatu sortzen diote sozialistari. Baina Lukacs ere ba dago. Ta Garaudy orain, bere borondatez AK sekula utzi izango ez zuena, ta orain atzera AK-ra itzultzeo itxaroten: horrek ere zer pen-tsatu sortzen dio sozialistari. Eta Soljenizyn, Alder-dikorik izan gabe bere herri ta jendearrekin bakarrik bizi nahita URSS-etik inora irten nahi gabe dagoena

Jose Azurmendi

donostiko aurrezki kutxa municipalak ez ditu berriak kontu-iriki erabiltze ta laguntza baña go-gorazi egin nai dizugu



Ongi dakizu kontu-irikiaren berri baiña ala ere jakin zazu, Donosti'ko Aurrezki Kutxa Municipalak'k zure esku daukala kontu-irikiaren jarritako dirua ere. Diru orrekin zer-nai egin dezakezu: diru-aldatze, giro, zerga ta kontu ordaintze ta abar. Zertarako egon etxera bial zai. Aurrez berri eman eta zu batere nekazi gabe kontuak zintzo ordainduak izango dirala. Nola?
Donosti'ko Aurrezki kutxa Municipal'ean kontua irikiaz.

